

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

CBA



ARITZ GALARRAGA

Beste uda bat iritsi da, uda arraroa, atipikoa, ezberdina, baina berdin izango dena kitzikagarria, seguru, uda guztiak bezala –baikortasun une batean harrapatu nauzue, bai-. Eta iritsi dela diot, konplitu baitut udako inimiziazio erritualarekin: eskuratu dut aurtengo *Un été avec* liburua, uda ofizialki abiatutzat ematen duena, aurten Pascali eskainia. Pascal, Montaigneren dizipulurik arretatsuena, haren era berean etsairik fermuena –kontrara, Montaignerik gabe ez legoke Pascalik, dio Antoine Compagnonek-. Abuztu pasionante bat daukat aurretik.

Hain zuzen, halako gauzez hitz egiteko erabili nahi nuen zutabe hau, gauza garrantzitsuez, Mercè Ibarz idazleak bere zutabeetan egiten duen modura, adibidez literatura frantsesaz. Baina, nire sorpresarako, zutabe frankofiloa izateaz aparte –hori, ni tartean egonda, ezinbestekoa zen-, aski mitteleuroparra ere atera zait. Izena iragarle zatekeen, ez nuen uste ordea, Stefan Zweigen ondoan, Elias Canetti edota Claudio Magrisekin hainbeste laketuko nintzenik. Horiek liluratu naute gehien, ibilbideek, ezagutzek, irrikek; eta interpelatu, horien gisakorik gurean ba ote dagoen. Neurona ondo estutu ondoren, hautagai posible bat: Carlos Blanco Aguinaga, CBA, Irungo Santiago kaleko 28.enean jaioa, Hendaian “erbesteratua”, Mexiko DFn, ikasle Harvarden, *Por el mundo* autobiografiaren lehen liburukian irakur daitekeenez: etxeko giroa, gerra garaia, batetik besterako errantzia, noski literatura –“*Because I do not hope to turn again*”, T.S. Eliot-. Traba bakarra: ez zuen euskaraz idatzi, ez zen euskalduna, nahiz haur garaian ezagutu zuen: “*dormía con mi abuelo, quien me hablaba vasco*”.

Eta, uda iritsi da, ez dut egingo, CBAren harira, gure hizkuntzaren, gure kulturaren, gure miserien gaineko hausnarrik. Pasa dezagun abuztua bakean. Irailetik aurrera ekingo diogu berriz horri. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

KULTURA
BEHARREZKO DA

ADUR

“ZEINEK ONARTUKO LUKE SEME-ALABAK IKUSI
GABE HAINBESTE HILABETE EGOTEA?”

SARE HERRITARRA

Euskal presoen seme-alabek urte erdia aita, ama edo biak ikusi gabe daramatela salatu du Sarek. Ia 100 motxiladun haur eta nerabe daude Euskal Herrian eta kartzela batzuetan esan diete abuztuan ere ez dutela familiarreko aurrez aurrekorik izango. Espetxean bizi diren motxiladun umeen egoera bereziki larria dela nabarmendu dute: “Aranjuez eta Picassenteko espetxeetan daude Izadi, Irati eta Ilargi. Oraindik ez dizkiete aurrez aurreko familiarrak eta konbibentzikoak onartu”. 2020/07/21

